



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSA-OHARRA

Batzar Nagusiek onartu egin dabe 2013. urterako aurrekontua, jarduera-gastua ia %4an gitxituta

- **Bizkaiko Legebatzarrak 7.942.383,60 euro gastatuko ditu datorren urtean, aurten baino %3,79 gitxiago.**
- **Kontuak gaur goizean onartu dira Araudi eta Jaurpiderako Batzordean Euzko Abertzaleak, Socialistas Vasco eta Bizkaiko Talde Popularraren aldeko botoakaz eta Bildu Taldearen aurkakoagaz. Abenduko “aparteko” soldata kendu eta gero, langileen 2013. urteko “aparteko” soldaten ordainketea aurreratu egingo da urtarrilera eta uztaiera.**

Bilbon, 2012ko abenduaren 28an.

Bizkaiko Legebatzarreko Batzarkide-Talde guztiek (Euzko Abertzaleak, Socialistas Vasco eta Bizkaiko Talde Popularrak), aurka bozkatu dauen Bildu Taldearen salbuespenagaz, bat etorri dira gaur Batzar Nagusietako Araudi eta Jaurpiderako Batzordearen bileran Erakundearen 2013. urterako aurrekontua onartzerakoan. Guztira 7.942.383 euroko gastua ekarriko dau horrek, aurtengorako izendatutako 8.255.641 eurotako baino %3,79 gitxiago. Akordioaren barruan sartzen da be langileen 2013. urteko “aparteko” soldaten ordainketea aurreratu egingo dala urtarrilera eta uztaiera, Madrileko gobernuaren 20/2012 Errege Lege Dekretuaren ondorioz abendu “aparteko” soldata kendu eta gero.

Batzar Nagusien jarduerarako diruaren gehiena aurrekontuaren I, II eta IV. kapituluetarako da (ikus beharagoko koadroa), eta guztirakoaren %90a da. Hor barruan sartzen dira langileen ordanketak — funtzionarioak, lan hitzarmeneko langileak, aldi baterakoak eta kargu politikoak —, Erakundearen egoitzen mantenimendu-gastuak — Bilboko administrazio-egoitza, Gernikako Batzarretxea, Abellanedakoa eta Gerediagakoa —, Enkarterrietako Museoaren kudeaketea eta la talde politikoei jagokezan ordainketak azken foru-hauteskundeetan lortutako ordezkariaren arabera.

I. kapitulua Langileen ordainteki buruzkoa da eta hor 112.816 euro aurreztuko ditu Bizkaiak, ia %3an gitxituko diralako Batzar Nagusien menpeko langile guztiei ordaintzeko erabiliko dana. Horretarako 3.822.079 euro izendatu ziran 2012. urterako, eta 3.709.263 euro jarri dira 2013. urterako. II. kapitulua Ondasunetarako eta zerbitzuetarako gastuak izenekoa da, eta hor izendatutako 2.169.606 euroetako gehiena Batzar Nagusien lau egoitza ofizialeko mantenimenduak (Bilbo, Gernika, Abellaneda eta Gerediaga) eta Enkarterrietako Museoaren kudeaketeak eroango ditu, aurreko urtean baino %1,8 gehiago. Ostera, lau Batzarkide-Taldee jagokezan ordainketak ez dira aldatzen. Beraz, Batzar Nagusiek alderdi politikoei ordainduko deutseena datorren urtean 2012. urtekoaren beste izango da, hau da, 1.616.464 euro.

2013KO “APARTEKO” SOLDATA BIEN AURRERAPENA



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Araudi eta Jaurpiderako Batzordearen saio berean behin betikotasunez onartu da 2012ko abenduko “aparteko” soldata ez ordaintzea Batzar Nagusien menpeko langileei —bardin funtzionario, lan hitzarmenpeko langile, aldi baterako langile edo kargu politiko izan—, eta 2013. urteko “aparteko” soldaten ordainketa urtarrileko eta uztaileko lehen egunetara aurreratzea. Horretara, bada, Batzar Nagusietako Mahaiak joandako abenduaren 11n horren inguruan hartutako erabagia onetsi egin da.

BATZAR NAGUSIEN AURREKONTUA. 2013. URTEA

GASTUAK (eurotan)

I. kapitulua: Langileen ordainketak	3.709.263,46
II. kapitulua: Ondasunetarako eta zerbitzuetarako gastuak	2.169.606,34
IV. kapitulua: Transferentzia arruntak	1.616.464,80
VI. kapitulua: Gauzazko diruezarketak	439.049,00
VIII. kapitulua: Finantza-eukarien aldaketak	8.000,00
Gastuen aurrekontua guztira	7.942.383,60

SARRERAK (eurotan)

IV. kapitulua: Transferentzia arruntak	7.000.000,00
V. kapitulua: Ondare diru-sarrerak	25.000,00
VIII. kapitulua: Finantza-eukarien aldaketak	917.383,60
Sarreren aurrekontua guztira	7.942.383,60



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Las Juntas Generales aprueban un presupuesto para 2013 que reduce el gasto de funcionamiento casi en un 4%

- **El año próximo, el Parlamento de Bizkaia gastará 7.942.383,60 euros, un 3,79% menos.**
- **Las cuentas, aprobadas esta mañana en la comisión interna de Reglamento y Gobierno con el apoyo de los grupos Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y Popular Vizcaíno, y el voto contrario de los representantes de Bildu, incorporan el adelanto de las pagas extraordinarias de los empleados a los meses de enero y julio de 2013, tras la eliminación de la “extra” de diciembre.**

Bilbao, a 28 de diciembre de 2012.

Todos los grupos junteros del Parlamento de Bizkaia (Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y Populares Vizcaínos), a excepción de Bildu que ha votado en contra, han llegado hoy a un acuerdo en la comisión interna de Reglamento y Gobierno para aprobar el Proyecto de Presupuestos de la cámara vizcaína para el año 2013, que contempla un gasto de 7.942.383 euros, lo que supone una disminución del 3,79% con respecto a los 8.255.641 de este año. El acuerdo incluye también el adelanto de las pagas extraordinarias de 2013 para los empleados públicos a los meses de enero y julio, tras la eliminación de la “extra” de diciembre como consecuencia de la aplicación del Real Decreto Ley 20/2012 del Gobierno de Madrid.

La mayoría del montante económico que las Juntas Generales dispondrán para su funcionamiento se lo lleva el destinado a cubrir los capítulos I, II y IV del Presupuesto (ver cuadro inferior) que suponen más del 90% del total. En estos apartados, está incluidos la remuneración del personal a funcionarios, empleados laborales, eventuales y cargos políticos, el mantenimiento de los bienes inmuebles (sede administrativa de Bilbao, Casas de Juntas de Gernika, Abellaneda y Gerediaga), la gestión del Museo de Las Encartaciones y la asignación económica a los cuatro grupos junteros en función de la representatividad obtenida en las últimas elecciones forales.

En el capítulo I de Remuneración del Personal, Bizkaia se ahorrará 112.816 euros, ya que los gastos derivados para pagar a todo el personal dependiente de la cámara vizcaína se reducirá casi en un 3%. Pasa de los 3.822.079 euros de 2012 a los 3.709.263 del año próximo. El mantenimiento de las cuatro sedes oficiales de las Juntas Generales (Bilbao, Gernika, Abellaneda y Gerediaga) y el fondo destinado a la explotación del Museo de Las Encartaciones, se llevará buena parte de los 2.169.606 euros incluidos en el apartado II de Bienes y Servicios, lo que supone un 1,8% más. Por su parte, la asignación económica a los cuatro grupos junteros no sufrirá variación. La aportación de la cámara vizcaína a los partidos políticos (PNV, Bildu, PSE y PP) el próximo año será la misma que en 2012, es decir, 1.616.464 euros.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ADELANTO DE LAS DOS PAGAS “EXTRAS” DE 2013

En la misma sesión, la Comisión ha aprobado de manera definitiva no proceder al abono en 2012 de la paga “extra” de diciembre al personal de las Juntas Generales, ya sean funcionarios, laborales, eventuales o cargos políticos, y adelantar el pago de las dos pagas correspondientes al ejercicio de 2013 a los primeros días de los meses de enero y julio, asumiendo así el acuerdo adoptado en la Mesa del parlamento vizcaíno el pasado 11 de diciembre.

PRESUPUESTO JUNTAS GENERALES. AÑO 2013

GASTOS (euros)

Capítulo I. Remuneraciones del Personal	3.709.263,46
Capítulo II. Compra de Bienes y Servicios	2.169.606,34
Capítulo IV. Transferencias Corrientes	1.616.464,80
Capítulo VI. Inversiones Reales	439.049,00
Capítulo VIII. Variación Activos Financieros	8.000,00
Total Presupuesto de Gastos	7.942.383,60

INGRESOS (euros)

Capítulo IV. Transferencias Corrientes	7.000.000,00
Capítulo V. Ingresos Patrimoniales	25.000,00
Capítulo VIII. Variación de Activos Financieros	917.383,60
Total Presupuesto de Ingresos	7.942.383,60